

Euskarazko narratibaren Euskadi Saria irabazi zuen Lizarralde 2021ean garai zehatz baten galera erretratatzeko duen 'Argiantza' eleberriarekin

✦ Miren Mindegia
✦ Javier Bergasa

IRUÑEA — Bere eleberrietan nola, elkarriketa honen agertokia zehaztea ez da beharrezkoa suertatzen. Inporta duten gauzek, izan ere, zehaztasun mota horri ihes egiten diote. Udazkeneko eguzkia leihotik sartzen da pareta txuri eta altuetako egongela atsegin batean, giroa lasaia da, patxadaz hartu dugu solas egiteko tartea. Kanpoan, txakurra atera duen baten bat, mandatuak egiten dabillen besteren bat. Plazako iturriaren etengabeko jarioa, arboletako hostoen doinu apala. Ez dago presarik. Bere eleberrietan nola, erritmoa pausatua ez du zertan erran nahi ezer gertatzen ez denik.

'Argiantza' eleberrian zure ohiko hirugarren pertsonako narratzailetik aldendu eta lehenengo pertsonan solas egiten jarri dituzu pertsonaiak.

—Poza ematen dit hori entzuteak. Liburu argitaratu aurretik, lagunei aipatu nien zerbait desberdina egin nuela, baina azkenean alperrik da, azkenean erraten didate *betiko Pello* dela liburuan aurkitzen dutena. Baina nik badakit ze ahaleginak egin behar izan ditudan egitura hau ere doitzeko eta behar bezala emateko. Lehenengo pertsonara pasatzea amildegiaren ertzean jartzea izan da niretzat. Hirugarren pertsonarekin oso eroso sentitu izan naiz, nahiz eta beti saiatu izan naizen hirugarren pertsona horri lehenengoaren kutsua ematen. Baina kasu honetan lehenengoan idatzi dut eta ez pertsonaia bakarria, sei bat baizik. Niretzat erronka oso handia izan da idazterakoan.

Etan gustura sentitu zara lortutako emaitzarekin?

—Konforme naiz idazten dudana sinesgarria bada eta sinesgarriak egiten badira pertsonaia eta ahots horiek. Baina horretarako lan handia egin behar da eta, batez ere, pertsonaia guztiak maitatu behar dituzu. Pertsonaia bat asko kargatzen baduzu batera edo bestera, liburua erori egiten da, hil egiten da. Denen arrazoiak eta denen egoerak ulertzen saiatu behar zara eta hala eman irakurleari.

Pertsonaia horietako bakoitzaren argi-ilunak bilatzean datza?

—Bai, horrek lana eman zidan. Askok esan didate giroak oso ongi atzematen ditudala. Beno, horretan uste dut entrenatuago nagoela eta pazientziak hartzen dut lan hori, xehe-xehe ematen ditut giroak eta tokiak. Baina besteak bildur handia ematen zidan. Gero, zenbat eta gehiago idatzi eta urte gehiago bete, gero eta segurtasun gabezia gehiago ditut, beldur handiagoa daukat.


Baina bistan dago emaitza ona izan dela azkenean, ezta?

—Liburuak ixten ditudanean beti esaten dut: Izango da ona, txarra edo erdipurdikoa, baina sekula ez lardaskeria bat. Askok saiatzeko naiz txukuntasuna mantentzen, presarik gabe idazten. Gero, ateratzen denean,

Pello Lizarralde

IDAZLEA

“Zenbat eta gehiago idatzi, orduan eta segurtasun gabezia eta beldur gehiago ditut”



inoiz ez dakizu zer ekarriko dizun liburuak. Kasu honetan, pentsa ezazu, saritua izan da lana... Baina sariak ez dira beti neurbide zuzenenak izaten. Nik idazten dudanean gauza bakar bat nahi dut, ez dut ameskeriarik. Sariak ez ditut inoiz gogoan izan ze inoiz ez naiz ni zuzenean sariketa batera aurkeztu. Bilatzen dudana, gauza guztien gainetik, irakurleen iritziak jasotzea izaten da.

Etan zer nolakoak izan dira kasu honetan bildu dituzun iritziak?

—Onak izan dira orokorrean, baina gauza bat esan beharra da, gogoko ez duenak ez dizu esaten, oso edukatua da jendea horrekin, kar-kar. Dudik gabe, ezin da denen gogoko izan... Laudorio asko etorri zaizkit, baina gehien estimatzen dudana interpretazio oso pertsonalak eta zehatzak jasotzea da. Batzuetan gauza oso harrigarriak iristen zaizkizu, burutik pasa ez zaizkizunak ere, baina, noski, balioa daukatenak. Liburua, azken batean, irakurtzen duenak egin behar du. Idazleak idatzi behar du eta irakurleak bukatu.

Hor osatzen da egindako lana?

—Hori da ederrena. Gogoko izan edo ez, iritzi guztiak estimatzen dira. Idazten duzunean, txukun argitaratzeko eskubidea daukazu baina, behin argitaratu duzunean, zuk ixildu egin behar duzu, eta kitto. Nik ez dut sekula nire liburua defendatuko, ez dut nire liburua alde egingo. Galdetzen didatenean, konta ditzaket idatzi dudana bitartean izan ditudan sentipenak edo zeintzuk ziren nire asmoak, baina nik idazten dudanaren kalitateaz ez dut sekula hitz egin eta ez dut hitz egingo ere. Ez naiz haserretuko kontrako iritziak jasotzen ditudanean. Ez naiz galtzaile txarra.

Zure lanetan tarte handia uzten diozu irakurleari bere hausnarketak, bere ondorioak ateratzeko. Kasu honetan, aurreko lanetan ez bezala, datak zehaztu dituzu. Lekuak, ordea, ez.

—Iritziak iritsi aurretik, batzutan galdera praktikoak egiten dizkirate irakurleek: *Aizu, hau zein toki da?* Nik esango nuke *Belate dela*. Ba Belate izatea nahi baduzu, hala izango da, eta beste bati Azpirotz dela iruditzen bazaio, Azpirotz dela esango diot. Normalean ez dira konforme gelditzen nire erantzunekin, jendeak zehaztapenak behar izaten ditu. Baina nik bizi izan dudanez ekartzen ditut leku horiek, askotan ez dira leku zehatzak, oso gutxitan dira existitzen diren tokiak. Askotan, handik eta hementik hartutako puskak dira, erreferentzia solteak. Oraingo honetan, aldiz, garaia zehaztea beharrezkoa zen.

Zergatik?

—Iragan hurbil hori islatu nahi nuela. 1982-83-84 urte horiek urte erabakigarriak izan ziren, orain bizi dugun momentu sozioekonomikoa eta politikoa hor hasi zelako gogortzen. Beti bizi izan gara kapitalismoaren pean, baina garai hartan iritsi zen liberalismo berriak koska bat estutu zuen egoera. Gaur langileriak bizi duen egoera larria, oso larria, orduan hasi zen eraikitzen. Momentu hartan, bizi duzunean, ez ginen ohartu. Baina orainalditik ikusita argi dago orduan eman zirela egungo egoerara iristeko lehenengo zantzuak. Seinaleak ziren. Ilusio eta mugimendu handiko

garaia ere izan zen, hala ere, ezta?
 –Bai, eta kalera ateratzen ginen asko eta asko. Lagunekin elkartzeko, kon-tzertuetara joateko, bidaiak egiteko edo erreibindikazioak kaleratzeko. Garai hartan lan hitzarmen txukunak sinatu ziren zenbait lekutan, bai-na laster etorri zen industria klasi-koen desegitea. Enpresa publiko asko itxi ziren. Krisialdiak egon dira 40 urteotan, baina hala ere orduan bazen duintasun bat: borroka han-dien ondoren lortutako duintasuna. Guzti hori desegin da.

Eta guzti hori zinemaren alorrera eramanezuz zehazki eleberri honetan.

–Bai, azken batean nik ongi ezagu-tzen dudan mundu bat da. Ezagutu ditut herrietako areto horiek, asko maite izan ditudanak, baita hirietakoak ere. Urte horietan halako enpresa bat nolako izan zitekeen irudikatu dezaket. Bideoa iritsi zen eta haren eskutik etxean sartu ginen, zinema aretoetara joateari utzi genion. Eta bideoarekin batera, den-borarekin etxean gero eta gehiago sartu gaituzten gauza gehiago ager-tzen joan dira. Esan gabe doa horrek gaur egun duen isla.

Zure idazkeran ohikoa den errit-moa mantendu duzu eleberri honetan ere. Eta arras filmikoa da, aldi berean. Lehenengo eszenatik hasita.

–Bai, hala izan da aurreko eleberri-tan ere. Idazterako orduan ez zaizkit ideiak interesatzen, nire liburuen

sorreran beti dago irudi bat. Kasu honetan beste irudi bat behar nuen, eta hori bukaerakoa izan zen, nobela osatzeko baliatu nuena. Bi irudi horiek nituenean esan nuen: badut liburua. Irudiak, niretzat, ez dizut esango obsesio bat direnik, baina oso garrantzitsuak dira. Askotan errepikatzen zaidan irudi batek beste iru-diei gaina hartu eta urtetan mantendu bada nire buruan, ideia hori baliagarria zaidala esan nahi du. Irudi horretatik ateratzen da dena. Gainera, uste dut iritsi zaitezkeela pertso-naien barne mundua ulertzera eta eman ditzakezula pertsonaia horren nortasuna definituko duten ezaugarri batzuk deskribapen bidez, esan gabe nola sentitzen den. "Pertsonaia hau triste zegoen" esatea, niretzat, frakaso bat da. Beste modu batez lortu daiteke horretara iristea. Zailagoa da baina, asmatzen baduzu, askoz efektu handiagoa lortzen duzu.

Hori da zure idazketa ulertzeko gakoak?

–Niri irakurtzea gustatuko litzaidakeen liburua idazten saiatzen naiz. Henry Jamesek esaten zuen fikzioa leiho asko dituen etxe bat dela. Nik aukeratzen dudana leihoa hau da, beste asko izan litezke eta ongi egongo lirake, baina ni benetan hunkitu eta barrena iraultzen didana tankera horretako liburua izaten da: oxigeno asko uzten diona irakurleari, hutsune asko dituen. Utzi egin behar zaio irakurleari interpretazioak egiten. XIX. mendean dena kontatzen zen,

istorioa bera goraiatzen zen. Baina istorioa, berez, ez da ezeren berme. Izan ditzakezu istorio onak eta liburu txarrak, edo alderantziz, baina uste dut hori ez dela inportanteena. Nik beste bide bat egiten dut.

Eleberri honetan kontzeptu bat nagusitzen bada, hori galeraren ideia da. Oraindik desagertu ez den baina desagertzear dagoen zerbaiten galerak eragiten duen sentsazio hori.

–Bai. Hau gizon baten sei eguneko bidaia da, behar bada bere azken bidaia. Hobe esanda, galduta dagoen gizon baten azken bidaia, galtzear dagoen mundu batean barrena. Dena galtzea da. Aurkezpenean esan nuen galdu aditzak definitzen zuela liburu hau. Bera galduta dabil eta, gainera, ezagutu duen mundu hori

“Galduta dagoen gizon baten azken bidaiaren kontakizuna da, galtzear dagoen mundu batean barrena”

“Bideoa iritsi zen eta haren eskutik etxean sartu ginen, zinema aretoetara joateari utzi genion”

“80ko hamarkada erabakigarria izan zen, orain bizi dugun momentua hor hasi zelako gortzen”

galzorian dago.

Nola definituko zenuke galtzen duen hori?

–Protagonistak bizitza ulertzeko modu bat galtzen du, harremanak ulertzeko modu bat. Bera alarguna da, dagoeneko zerbait galdu du. Gainera, ez dago ase etorkizunera begira ikusten duen bizitzarekin. Bestalde, ezagutzen duen mundu horren galera ematen da. Lehen aipatu dugun mundu horretaz ari naiz: kalean besteekin bai erreibindika-zioak egiterako orduan, bai gozatzeko orduan edo ametsak eraikitze orduan bizi genuen mundu hori. Belaunaldi oso baten mundua, gertatzen ari zen momentuan hala izango zela ohartu ez baginen ere. Orain ere gertatzen ariko dira gauzak etorkizun-ean seinaleztat hartuko ditugunak, baina ez gara hori ulertzeko gai. Gertatzen ari diren bitartean gauzak ulertzea oso zaila da, batzuek horretarako ahalmena dutela dirudien arren. Borrokatzeko moduak aldatu diren arren, zeozer iritsi izanen da, ez da dena galera izango, ezta?

–Ez, baina indar asko galdu dugu. Kontuz, ez dut nostalgia apurrik hau esaten dudanean. Ez dut esaten “gal-du genuen”, baizik eta “gero eta gehi-ago galtzen ari gara”. Askok galdu dugu garai hartatik hona, berme sozialak, esateko. Baina ez genuen paradisurik, baziren infernuak eta badira infernuak gaur ere. Hala ere, uste dut saka-banatu gaituztela, hori lortu dute. Ora-in, adibidez, enpresa batean modu

txarrean langile bat kaleratzen nola aterako zara haren alde, jakinda aka-so zure kontratua sei hilabetekoa dela eta istantean kaleratu zaitzaketa nahi badute? Oso zaila da. Ez dut esaten orduko jendea hobea zenik, ez dut jendeaz hitz egiten, jarri dizkiguten baldintzez baizik. Ordukako kontra-tuak egitera iritsi gara, horraino iritsi da degradazioa. Sistemak aginak orduan zorrotzu zituen, eta nola zorrotzu gainera? **“Paradisu zinema” filmarekin alde-ratu izan dute zure eleberria, nostalgiatik aunitz duen film bat. Zer iruditzen zaizu?**

–Ba gaizki, zer esango dut, kar-kar. Sentimentalismoa ez zait gustatzen. Sentimentuak oso garrantzitsuak direla uste dut, baina sentimentuetan oinarritzea zerbait lortzeko, ez. **Paradisu zinema**-n nostalgia dago eta liburu honetan uste dut ez dagoela hala-korik. Konparaketa hori egiten dute-nei ez diet ezer esango, baina niri ez zait gustatzen. Beste bide bat hartzen duela uste dut.

Zein zinema estilorekin konparatu daiteke zure idazkera?

–Road-moviea, adibidez, izan daiteke konparaketa on bat. Genero hori asko gustatzen zait. Aurten ikusi dudana filmik hoberena *First Cow* izeneko bat da, Kelly Reichardt zuzen-dari zoragarriarena. Forma aldetik ambizioa duten filmak dira, hitz gutxikoak eta irudietan efekturik ez dutenak. Efekturik gabeko gauzak gustatzen zaizkit. ●

W. A. Mozart

LA CLEMENZA DI TITO



Urtarrilak / Enero '22
 22, 24, 26, 28, 31

ESTREINALDIA BILBON /
 ESTRENO EN BILBAO

📍 Euskalduna Bilbao

24an hemen jasoko zaitugu /
 El día 24 te pasamos a buscar por



Operare honen babeslea /
 Patrocinador exclusivo de la ópera

Fundación
BBVA

Laguntzailea / Colabora
Gipuzkoa
 Zer ikasari, turu izan

ABA | BILBAO
 OPERA